

# Axun Aierbe Mendizabal gogoan

---

MAITE IMAZ LEUNDA

Axun Aierbe Mendizabal itzultzaile, irakasle, ikerlari eta euskaltzalea garuneko odol isuri batez hil zen Donostiako ospitalean, 2008ko apirilaren 15ean, 39 urte besterik ez zituela. Altzon jaio zen, 1968ko apirilaren 28an, baina txikitatik Ibarra bizi izan zen.

Gasteizko Letren Fakultateak omenaldia egin zion 2009ko apirilaren 1ean, bertako irakasle eta dekanorde izan baitzen. Axun Aierbe zenaren lankide, ikasle eta adiskideak bildu ziren familiarekin batera, haren oroimenean. Ekitaldi hartako parte hartzaileak izan ziren Fernando García Norga, Letren Fakultateko dekanoa, Xabier Paya, itzultzaile eta ikasle ohia, Jon Kortazar, Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna eta Axunek parte hartu zuen euskal literatura-ko ikerketa-proiektuaren ikertzaile nagusia, Miren Azkarate Villar, Axunen irakasle izandakoa eta tesi zuzendaria, eta artean

Kulturako sailburua, eta ni neu, EIZIEko kide naizenez. Han esan nituenak oinarri hartuta prestatu dut artikulutxo hau. Axunek bizitza laburra izan arren lanbide-ibilbide oparoa izan zuen eta jakintzagai ugari jorratu zituen. Nire asmoa itzulpengintzari lotuta egin zuen lanbide-ibilbideari arrastoa jarraitzea izan da. Nolanahi ere, baliteke ibilbide emankor horretan nik zerbait ahaztu izana.

Euskal Filologiako 4. ikasturtea has-tear nengoen Axun Aierbe, nolabait esateko, modu formalean aurkeztu zidatenean, 1986ko uda amaieran, Tolosan. Nire lehengusu bat izan zen Axun aurkeztu zidana, haren koadrilako laguna baitzen, eta Axunek ere Donostiako fakultatean Euskal Filologia ikasten hasi behar zuenez, elkarren berri izatea komenigarria zela iruditu zitzaion. Ez zen hura ordea Axun ikusten nuen lehe-

nengo aldia. Bera ez zen nirekin gogoratzen baina nik ondo gogoan nuen noiz eta non ikusi nuen lehenengoz, eta baita zer nolako inpresioa eragin zidan ere. Urtebete lehenago izan zen. Ibarako ikastolak euskarako irakasle bat hartzeko elkarrizketa baterako deialdia egin zien interesatuei. Nik Irakasle Ikasketak bukatu berriak zituzten bi lagun nituen, ez nuen seguru aski arratsalde hartan aparteko zereginik izango, eta haiei laguntzea erabaki nuen. Espero zutena baino askoz jende gehiago azalduz zenez, itxaron bitartean bertaratutako batzuekin hitz egiteko aukera izan nuen. Axun zen haietako bat eta bera izan zen harridura gehien eragin zidana; kontatu zigunean berak ez zuela titulurik, badaezpada joan zela, orduko UBI edo COU (Unibertsitatera Bideratutako Ikasturtea) ikasten hasi berria zela, pentsatu nuen oso ausarta zela eta gehien harritu ninduen izan zen gainerako hautagai guztiak tituludunak zirela ikusi arren, ez zela beldurtu eta hantxe egon zela beste guztiak bezala elkarrizketarako txanda noiz iritsiko zain. 17 urte besterik ez zituen.

Euskal Filologia ikasten hasi eta hilabete gutxira Ibarako Udalean itzultzaile/liburuzain lanpostua eskuratu zuela kontatu zidan, fakultateko pasilloan topo egin genuen batean. Udalean lanean ari zen bitartean egin zituen Euskal Filologiako ikasketak eta bukatu orduko doktorego ikastaroei ekin zien, “Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritza” programan; eta gero “Hizkuntza Plangintzarako Diplomatura” egin zuen. Aldi berean, Tolosan sortu berria zen Galtzaundi euskara elkarteko lehenengo lehendakaria izan zen. Orduan ere, elkartearen sortzaileen

arteko gazteena izan arren, ausardia handiz onartu zuen lehendakari izatea, 22 urterekin. Galtzaundi elkarteko lehendakaria izan zen 1990 eta 1996 bitartean, eta ondoren, 1996 eta 1998 bitartean, Euskal Elkartearen eta Herri Aldizkariaren Topaguneko idazkaria eta hainbat lantaldearen arduradun koordinatzailea. Oso langilea zen Axun eta denetara iristen zen.

Ibarako Udalean 15 urtez aritu zen lanean; itzultzaile eta liburuzain gisa lehenengo zazpi urteetan, eta itzultzaile eta euskara teknikari gisa ondorengo zortzietan. Oraindik udaleko langile zela, 1998an, Euskal Herriko Unibertsitateko Letren Fakultatean Euskal Literaturako irakasgaia ematen hasi zen Euskal Filologian. Lau urteren ondoren, 2002an, udala utzi eta Unibertsitatera dedikatu zen erabat, eta ordutik aurrera Itzulpengintza eta Interpretazioko irakasle ere izan zen, Terminologia eta Itzulpen Praktikak irakasgaiak emanez. Gazterik hasi zen itzulpengintzan eta jakintzagai ugari jorratu zituen arren, Axunen lan-ibilbidea beti egon zen itzulpengintzari lotuta, itzulpenak eginez edo itzulpengintzako irakasle eta ikerlari lanak eginez.

**Itzulpen-lanei** dagokienez, itzultzaile gisa udalean egin zituen administrazioko itzulpenez gain, nabarmentzekoak dira euskarara itzuli zituen liburuak. Ibarako Udaleko langilea zela Jordi Solé i Camardons-en *Soziolinguistika Gazteentzat* liburuaren itzulpen-egokitzapena egin zuen UEUrako, Udako Euskal Unibertsitaterako, talde-lanean (1991).

Iñaki Linazasorok Ibarako historiaz eta gorabeheraz idatzitako liburua ere itzuli

zuen eta Ibarako Udalak elebitan argitaratuta zuen *IBARRA Todo un pueblo - Erabateko herria* izenburupean (1997).

Unibertsitatera joan ondoren Jon Kortazarren *Euskal Literatura XX. Mendean* liburua euskaratu zuen eta horrezaz gain gaur egungo literaturari buruzko bibliografia hautatua osatu zuen libururako.

Baina itzulitako lanen artean aipamen berezia merezi dute Felix Ugarte itzulpen lehiaketaren hiru edizio, IX.a, X.a eta XI.a, hiru urte jarraituetan (2001ean, 2002an eta 2003an) irabazteko bidea eman zioten artikuluek; hiru kasuetan itzulpengintzarekin lotutako gaiak ziren sariak lortu zituzten itzulgaietan jorratzen zirenak

- 2001ean M<sup>a</sup> Teresa Cabré hizkuntzalarikatalanak Montrealen argitaratzen den META aldizkarian argitaratutako artikulua bat itzuli zuen frantsesetik: (*Terminologies ou terminologies? Spécialité linguistique ou domaine interdisciplinaire?*) “Terminologia ala terminologiak? Hizkuntza-espezialitatea ala diziplinarteko alorra?”.
- 2002an, Juan Carlos Sagerren artikulua bat (“*Terminología y traducción*”) itzuli zuen gaztelaniatik: “Terminologia eta Itzulpengintza”.
- 2003an, Laura Santamariaren artikulua bat (“*La traducció jurídica, paraula de traductor?*”) itzuli zuen katalanetik: “Itzulpengintza juridikoa, itzultzailearen hitza?”.

Testuak itzultzen egindako bidez go-goeta egiteko beharra nabaritututa eta gogoe-

ta egiteko dagoeneko material ugari zegoela iritzita, Axunek **ikerketa-lan** ugari egin zituen itzulpengintzaz, kongresuetan eta jardunaldietan ponentziak eta komunikazioak aurkeztuz.

- “Administrazioaren iragarkiak: publizitate-arloko hizkera?”, Leioako *Espezialitateko hizkerak eta terminologia jardunaldiak: euskara estandarra eta espezialitate hizkerak* izeneko jardunaldietan, 2002ko irailean.
- “La traducción del género en el lenguaje administrativo: El caso de la lengua vasca”, Valentziako Unibertsitateak antolatutako *First International Seminar on Gender and Language: The Gender of Translation / The Translation of Gender* izeneko mintegian, 2002ko urrian.
- “Análisis comparativo del discurso en textos administrativos en lengua española y en lengua vasca” Nafarroako Unibertsitateak antolatutako *Congreso Internacional de Análisis del discurso: lengua, cultura, valores* izeneko biltzarrean, 2002ko azaroan.
- “El léxico específico y la terminología de las noticias de prensa en lengua vasca relacionadas con temas administrativos”, Kubako Santiagoko *VIII Simposio Internacional de Comunicación Social* izeneko biltzarrean, 2003ko urtarrilean.
- “Gaztelaniazko agindu- edota bete-behar-balioko geroaldiaren ordainak euskarazko administrazio-testuetan”, Leioako *Espezialitate-hizkerak eta terminologia jardunaldiak: euskara estandarra*

*eta espezialitate hizkerak* izeneko jardunaldietan, 2005eko abenduan.

- “La traducción a la lengua vasca de las unidades fraseológicas especializadas del lenguaje administrativo”, Santiagoko Compostelako *Congreso Internacional de Fraseología y Paremiología* izeneko biltzarrean, 2006ko irailan.
- “Las unidades fraseológicas eventivas del lenguaje administrativo y su traducción a la lengua vasca”, Granadako *II Simposio Internacional de Terminología - II. Congreso Internacional sobre lenguas y culturas del mundo: Lenguaje e integración sociocultural* izeneko biltzarrean, 2006ko azaroan.
- “La Traducción y los libros de estilo para la lengua vasca”, Murtziako Unibertsitateko *XXV Congreso Internacional de AESLA (Asociación Española de Lingüística Aplicada)* izeneko biltzarrean, 2007ko apirilean.
- “La traducción a la lengua vasca de los adjetivos relacionales del ámbito económico utilizados en textos administrativos”, Bartzelonako *VI Simposio Internacional de Terminología. Literalidad y dinamicidad en el discurso económico* izeneko biltzarrean, 2007ko uztailan.
- “Los estudios de traducción en el País Vasco: español-vasco/vasco-español, 5th EST Congress-Ljubljana 2007: Why TS Matters izeneko biltzarrean, 2007ko irailean.
- “Loanwords and semantic borrowings of computer and internet terminology in Spanish and Basque”, Valladolideko Unibertsitateko Cristina Bayón

Garcíarekin batera, Lisboako *VI Congreso Internacional da Associação Europeia de Línguas para Fins Específicos 6th International AELFE Conference* izeneko biltzarrean, 2007ko irailean.

- “Birformulazio-estrategiak eta komunikagarritasuna administrazioko testuetan”, Leioako *Espezialitateko hizkerak eta terminologia III: espezialitate hizkeren didaktika eta komunikazioa* izeneko jardunaldietan, 2008ko urtarrilean.
- “La traducción a la lengua vasca de las locuciones prepositivas de los textos administrativos,” Almeriako *XXVI Congreso Internacional AESLA* izeneko biltzarrean, 2008ko apirilean. Hau izan zuen azkeneko kongresua.

2008ko maiatzean Bartzelonan egin zen *Congreso Internacional de Neología en las lenguas Románicas* izeneko jardunaldietan ere aurkezpen bat hitzartua zuen. Honako hau zen gaia: **Palabras y términos prefijados españoles de textos administrativos: ¿neologismos de creación propia o neologismos de préstamo en lengua vasca?**”.

*Argia* aldizkariko egin zituen kolaborazioetan ere jardunaldi horietako batzuen laburpen-artikuluak idatzi zituen.

Axunek itzulpengintzako alorrean aurkeztutako ponentzia gehienek administrazio-hizkerarekin eta administrazio-itzulpenarekin zuten zerikusia, izan ere Administrazio Euskarari buruzko doktorego-tesia prestatzen ari baitzen Miren Azkarate irakaslearen zuzendaritzapean.

Sarri egin nuen Axunekin topo: ikasle ginela Donostiako EUTGn, Tolosan Gal-tzaundik antolatzen zituen ekitaldietan, Ibarako Udalean bigarren itzultzaile bat kontratatzeko epaimahaikide izatea egokitu zitzaidanean, Gasteizko Letren Fakultatean irakasle lanetan aritu nintzenez, EIZIEko ekitaldietan...; ETB1eko lehiaketa batean parte hartu zuenean, 1989an, publiko artean egotea ere egokitu zitzaidan.

EIZIEren 2008ko Batzar Nagusira auzoan elkarrekin joan ginen Axun eta biok, Amorebietara, martxoaren 1ean. Batzarra eta ondorengo bazkari eta solasaldiak bukatu ondoren Tolosara itzuli ginenean, kotxea nik eraman nuen, dirua eman zidan gasolina gastuetarako. Nik diru gehiegi eman zidala esan nion eta berak sobratzen zenarekin egunen batean kafe bat hartuko genuela erantzun zidan. Beste baterako uztea baino dirua orduantxe bertan gastatzea genuela onena erabaki genuen eta hala joan ginen taberna pare batera; ez genuen kaferik hartu baina pintxo batzuk jan bai. Eta hura izan zen Axun ikusi nuen azkeneko aldia.

Handik hilabete eta erdira Axun zoritxarrez joan egin zitzaigun, garuneko isuri baten erruz, baina joan ondoren ere izan dugu aukera haren lan interesgarriak ikusteko; 2008ko maiatzean, argitaratu zen *Gramatika Jaietan*. Patxi Goenagaren omenez liburuan “Euskal estilo-liburuetakoko gramatika-arloko itzulpen-gomendioez” idatzi zuen artikulua azaltzen da.

Eta geroago, urrian, Axunen artikuluez osatutako *Itzulpengintza-estrategiak* liburua aurkeztu zuten Ibarren. Oraingoan literatur itzulpena izan zuen aztergaia, gaztelaniara itzulitako euskal obra batzuen itzulpena

zehatzago esanda, Axunek berak zioenez, oso garrantzitsua baita euskal literatura gaztelaniara eta beste hizkuntza batzuetara itzuli eta beste literatura-sistema batzuetan txertatzea. Eusko Ikaskuntzak emandako laguntza batzuei esker urtero-urtero artikulua bat idazteko ohitura hartu zuen, proiektu bakarraren ikuspegiarekin, etorkizunean liburu osoa izango zenaren kapituluak osatuz. 2005, 2006, eta 2007. urteetan idatzi zituen artikulua, Anjel Lertxundi, Harkaitz Cano eta Ramon Saizarbitoriaren literatur obra batzuen gaztelaniatzeko itzulpenaz. Hiru artikulua horiek osatzen dute liburua. 2008an ere eskatu zuen laguntza baina zoritxarrez ez zuen lanik egiteko aukerarik izan.

Bistakoa da zor handia daukagula itzultzaileok Axunekin. EIZIEk ere bere ekarpena egin nahi izan zuen EHUn egin zitzaion omenaldian eta Axun Aierbek Itzul posta-zerrendara bidali zituen mezuen arteko bat berreskuratu zuen egun horretan 2tzulblogean argitaratzeko. 2tzulbloga 2008ko urrian sortu zen, ItzulL posta-zerrendaren osagarri gisa, ItzulL posta-zerrendako eztabaidetan sortzen diren ekarpen interesgarriak modu sistematikoan jasotzeko. Eta Axunek 2002an *funtzionatu* eta *preskribatu moduko aditzen erregimenaren inguruan* Itzulera bidalitako mezuak merezi du blog horretan egotea. Izan ere, ia 5 orrialdeko mezua da; beraz, artikulua, mezua baino gehiago eta bereziki landutako artikulua gainera. Gaurkotasanaren aldetik ez du ezer galdu; artikulua sakona eta oso interesgarria da itzultzaileontzat nahiz hizkuntzalarientzat.

**Axun Aierbek euskarara itzulitako liburuak eta artikuluak:**

- Linazasoro, Iñaki: *IBARRA Todo un pueblo - Erabateko herria*, Ibarra Udalak, 1997 (euskaratzailea, Axun Aierbe).
- Solé I Camardons, Jordi: *Soziolinguistika Gazteentzat*, UEUren Soziolinguistika Saila, 1991 (euskaratzailea, Axun Aierbe eta beste zenbait).
- [www.soziolinguistika.org/modules/Bat/artikuloakPDF/17/Odriozola.pdf](http://www.soziolinguistika.org/modules/Bat/artikuloakPDF/17/Odriozola.pdf)
- Kortazar, Jon: *Euskal Literatura XX. Mendean*, Pramés, Zaragoza, 2000 (euskaratzailea, Axun Aierbe).
- Cabré, M<sup>a</sup> Teresa: “Terminologia ala terminologiak? Hizkuntza-espezialitatea ala diziplinarteko alorra?”, in *Uztaro*, 40 (2002), 63-74 (euskaratzailea, Axun Aierbe).
- <http://www.uztaro.com/denak/41.html>
- [www.uztaro.com/uztaro\\_fitxategiak/758\\_uztaro40\\_4.pdf](http://www.uztaro.com/uztaro_fitxategiak/758_uztaro40_4.pdf)
- Sager, Juan Carlos: “Terminologia eta itzulpengintza”, in *Uztaro*, 43 (2002), 53-66. (euskaratzailea, Axun Aierbe).
- <http://www.uztaro.com/denak/44.html>

**Administrazio-itzulpengintzaz egindako azterlanak**

- AIERBE MENDIZABAL, Axun: “La traducción del género en el lenguaje administrativo: El caso de la lengua vasca” in SANTAEMILIA, José (arg.) (2003): *Género, lenguaje y traducción*, Departamento de Filología Anglesa i Alemana,

Universitat de València & Generalitat Valenciana, Conselleria de Benestar Social, Dirección General de la Mujer, Valencia, 516-526.

- AIERBE MENDIZABAL, Axun: “Administrazioaren iragarkiak: publizitate-erloko hizkera?” in ALBERDI LARIZGOITIA, Xabier & UGARTEBURU GASTAÑARES, Iñaki (arg.) (2003): *Espezialitate-Hizkerak eta Terminologia: Jardunaldiak*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 255-270.
- [www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/euskara\\_inst\\_jardunaldiak2002/eu\\_jard2002/adjuntos/16.pdf](http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/euskara_inst_jardunaldiak2002/eu_jard2002/adjuntos/16.pdf).
- AIERBE MENDIZABAL, Axun: “Análisis comparativo del discurso en textos administrativos en lengua española y en lengua vasca” in Manuel Casado Velarde, Ramón González Ruiz y M<sup>a</sup> Victoria Romero Gualda (arg.) (2006) *Análisis del discurso: lengua, cultura, valores. Actas del I Congreso Internacional Universidad de Navarra, Pamplona, noviembre 2002*, Arco/Libros, Madrid, 1845-1856.
- AIERBE MENDIZABAL, Axun: “Gaztelaniazko agindu- edota betebeharrak balioko geroaldiaren ordainak euskarazko administrazio-testuetan”, in Ugarteburu Gastañares, Iñaki; Salaburu Etxeberria, Pello (arg.) (2007): *Espezialitateko Hizkerak eta Terminologia II. Euskara estandarra eta espezialitate hizkerak*,

- Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 171-184.
- AIERBE MENDIZABAL, Axun: “El léxico específico y la terminología de las noticias de prensa en lengua vasca relacionadas con temas administrativos” in RUIZ MIYARES, Leonel; ÁLVARO MORENO, Celia E. & ÁLVAREZ SILVA, María Rosa (arg.) (2003): *VIII Simposio Internacional de Comunicación Social Santiago de Cuba, 20-24 de enero de 2003, Actas-II*, Centro de Lingüística Aplicada, Ministerio de Ciencia, Tecnología y Medio Ambiente, Santiago de Cuba, 714-719.
  - AIERBE MENDIZABAL, Axun: “Las unidades fraseológicas eventivas del lenguaje administrativo español y su traducción a la lengua vasca” in D. Luque Durán / A. Pamies Bertrán (arg.) (2007) *Interculturalidad y Lenguaje, II: Identidad cultural y pluralidad lingüística*
  - AIERBE MENDIZABAL, Axun: “La traducción a la lengua vasca de los adjetivos relacionales del ámbito económico utilizados en textos administrativos” in M. T. Cabré, C. Bach, C. Tebé (arg.) (2008). *Literalidad y dinamicidad en el discurso económico VI Actividades de IULATERM Verano (09 - 12 de julio de 2007)*, IULA, DOCUMENTA UNIVERSITARIA, Bartzelona, 187-200.
  - AIERBE MENDIZABAL, Axun: “Euskal estilo-liburuetako gramatika-arloko itzulpen-gomendioez” in *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez liburuan*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2008, 1-12.
  - AIERBE MENDIZABAL, Axun: “Birformulazio-estrategiak eta komunikagarritasuna administrazioko testuetan” in Pello Salaburu Etxeberria, Iñaki Ugarteburu Gastañares (argit.) (2008) *Espezialitateko hizkerak eta terminologia III: “Espezialitate Hizkeren Didaktika eta Komunikazioa*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 235-240. [www.ei.ehu.es/p289-content/eu-contenidos/informacion/euskara\\_inst\\_jardunaldiak2008/eu\\_jar2008/adjuntos/LIBURUAehuei08-24.pdf](http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu-contenidos/informacion/euskara_inst_jardunaldiak2008/eu_jar2008/adjuntos/LIBURUAehuei08-24.pdf).
- Hainbat jardunaldiri buruz egindako laburpenak**
- AIERBE MENDIZABAL, Axun: “Euskalkien erabilera administrazioan” in *Argia*, 1.856 (2002), 16-17. [www.argia.com/argia-astekaria/1856/euskalkien-erabilera-administrazioan](http://www.argia.com/argia-astekaria/1856/euskalkien-erabilera-administrazioan).
  - AIERBE MENDIZABAL, Axun: “Terminoen peskizan” in *Argia*, 1.871. (2002), 18-19.
  - [www.argia.com/argia-astekaria/1871/terminoen-peskizan](http://www.argia.com/argia-astekaria/1871/terminoen-peskizan).
- Literatur-itzulpengintzaz egindako azterlanak**
- AIERBE MENDIZABAL, Axun: *Itzulpengintza-estrategiak*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2008.

Itzulpengintza ez zenez izan landu zuen jakintzagai bakarra, badira Axunen partaidetza izan zuten hitzaldi, argitalpen eta liburu gehiago, baita hitzaldiak eta ikastaroak

ere; baina, esan bezala, artikulu honen helburua itzulpengintzari lotutako lanen berri ematea izan da.



### **Axun Aierbe en el recuerdo**

Axun Aierbe Mendizabal (1968-2008) comenzó desde muy joven su labor como traductora: acababa de comenzar sus estudios universitarios de Filología Vasca cuando consiguió el puesto de traductora en el ayuntamiento de Ibarra, y a partir de entonces su trayectoria profesional siempre estuvo ligada a la traducción, aunque fueron varios los ámbitos profesionales que a lo largo de su breve pero fructífera vida cultivó. Este artículo tiene su punto de partida en el homenaje que La Universidad del País Vasco, de la que fue profesora y vicedecana, le ofreció el 1 de abril de 2009, y en el que tuve el privilegio de participar en representación de EIZIE; trata de mostrar, de forma sucinta, las actividades que desarrolló como traductora en la administración, como profesora de Traducción e Interpretación en la Universidad del País Vasco y como investigadora a lo largo de su carrera profesional. Estaba redactando su tesis doctoral sobre el euskera utilizado en la administración y fueron muchas las ponencias y comunicaciones que expuso en congresos y seminarios hasta su precoz muerte debida a un derrame cerebral.

### **Axun Aierbe in memoriam**

Axun Aierbe Mendizabal (1968-2008) commença très jeune son travail de traductrice : elle venait à peine d'entamer ses études universitaires dans le domaine de la philologie basque, lorsqu'elle obtint le poste de traductrice à la mairie d'Ibarra, et à partir de ce moment, sa trajectoire professionnelle fut toujours liée à la traduction, bien que tout au long de sa brève mais féconde vie, elle travailla dans plusieurs domaines professionnels. Cet article a été écrit après l'hommage que l'Université du Pays Basque lui a rendu le 1<sup>er</sup> avril 2009 et auquel l'auteur de cet article a l'honneur de participer en représentation de l'association EIZIE ; Il essaie de montrer de façon succincte, les activités qu'elle mena, à la fois, en tant que traductrice dans l'Administration, professeur de Traduction et d'Interprétation à l'Université du Pays Basque et chercheur tout au long de sa carrière professionnelle. Elle était en train de rédiger sa thèse doctorale sur l'euskara utilisé dans l'Administration au moment où un accident cérébral lui provoqua la mort, mais elle eut néanmoins le temps de présenter nombre d'exposés et de conférences dans divers congrès et séminaires.

### **Remembering Axun Aierbe**

Axun Aierbe Mendizabal (1968-2008) began young in her work as a translator: she had just begun her university studies in Basque Philology when she was offered the job of translator for the Ibarra City Council, and from then on her professional career was always linked to translation, though she worked in many different areas in her brief but productive life. My article begins with the tribute paid her on April 1, 2009 by the University of the Basque Country, where she was a professor and vice dean, and in which I had the privilege of participating as a representative of EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte; the Association of Translators, Correctors and Interpreters of the Basque Language); it offers a brief review of her various accomplishments as a translator in the administration, as a professor of Translation and Interpretation at the University of the Basque Country and as a researcher throughout her professional career. She was writing her doctoral dissertation on the Basque used in the administration, and had given many talks and papers at conferences and seminars before her untimely death due to a brain hemorrhage.